

DISEINUA ETA ARKITEKTURA UZTARKETAK. ESKULTURAK GIROTURIKO GOI-MAILAKO BINA IRAKASGAIREN ADIBIDEA

Isusko VIVAS-ZIARRUSTA
Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, Bilbao (Espainia)

1. HASIERAKO «BEGIRADA» BIKOITZA. HELBURUEN ETA LAN-METODOEN HARIAN

Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Arte Ederren Fakultateak, Sorkuntza eta Diseinuko Gradua ezarri zuen 2010-2011. ikasturtean, goi-mailako ikasketen esparruan Europako sistemetan dituzten baliokidetasunekin bat egiteko zein ikasketak eraberritzeko edota birmoldatzeko prozesuen ondorioz. Ildo horretan, 2012-2013. ikastaroan, hain zuzen ere, Eskultura Sailak Zeramika: Artea eta Funtzioa unibertsitate-masterra sustatu eta eskaini zuen lehendabizikoz, izaera ofizial-arautua zuena. Orduz geroztik, zenbait ataletan egituraturiko irakaskuntza *corpusa* integratuz eta sendotuz doa; eskulturarekin, haren eremu eta ingurune hedatuekin nahiz hedakorrekin¹ loturak baliatuz eta indartuz.

Sorkuntza eta Diseinuko aipatu Graduak, batez ere diseinu grafikoarekin, nortasun korporatiboaren lanketarekin, ilustrazioarekin nahiz komikiarekin erlazioa duten MINOR ibilbideak finkatu ditu. Hala ere, Eskultura arloko irakasgaien bitxitasun aberasgarriak ez dio garrantzia murrizten, hirigintzaren espezializazioan zehaztutako berezitasun artistikoei bidea eta jarraitutasuna bermatzeko. Ikasle ohiak garapen profesional artistiko/aplikatuan jarduteko tresna teoriko/metodologiko

¹ Rosalind KRAUSS (1996).

eta praktikoa aproposak lortzeaz gain, Ikerketa Arte Garaikidean Dokto-rego Programaren ikerlerroetara sarrera erraztu baitezake.

Eskulturari, zeramikari, arkitekturari, hiri-espazioari, diseinuari eta inguru-giroari buruzko bi irakasgai zehatz aztertuko ditugu, biak ere UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateari atxikiak:

1. *Hiri Espazioa/Ingurugiroa*. Sorkuntza eta Diseinuko Gradua, 3. ikastaroa, lehen lauhilekoa, jakintza arloaren enborrekoa, 6 edo 7,5 ECTS kreditu.

2. *Zeramika eta Arkitektura*. Zeramika: Artea eta Funtzioa Unibertsitate Master ofiziala, nahitaezko irakasgaia, 4 ECTS kreditu.

Irakasgaiak abiarazteko funtsezko klabeak ematean datza, jomugarik nagusia: alde batetik *Zeramika eta Arkitektura*, aipatutako masterrean ardaztua/gorpuztua; bestetik *Hiri Espazioa/Ingurugiroa*, Gradu hirugarren mailako irakasgaiarekin uztartuta. Helburu osagarria aplikazio elkarkidetuak baloratzea eta ezberdintasun/antzekotasun nahiz egiaztagarri/aipagarriak azpimarratzea baita, haietatik hasita eboluzionatu ahal izateko.

Helburu printzipala, hortaz, aipatutako master ofizialeko *Zeramika eta Arkitektura* irakasgaia diseinatzeko oinarritzko trazak ematea da, Sorkuntza eta Diseinuko Gradu hirugarren mailako *Hiri Espazioa/Ingurugiroa* irakasgaiarekin konparatuz. Emaizak arakatu, aztertu eta ikertze prozesu baten ondoren zehaztu ahal izan da hori. Helburu osagarria da bietan partekatutako lan-ildo zein aplikazioak balioestea, eta, era berean, azpimarratzea desberdintasun nabarmenak ere badaudela. Etorkizunean, epe labur edo ertainean, lanean jarraitzeko bideak bilatuz aurrera egin ahal izateko, berriro Europatik ez ezik maila nazionalean edo komunitarioan goi-mailako eta unibertsitateko ikasketa-planen birmoldaketa berriak egin arte; hauek ere berandu baino lehen etorriko zaizkigu eta.

Gutxi gorabeherako metodo konparatiboa darabilgu, irakaskuntza-metodologia partekatu eta konkurrenteen, aktibo baizen parte-hartzaileen eta gaitasunen alderditik ezberdinak diren curriculum-maila bakoitzera egokitutakoen aukera aplikatuetan arreta jartzen duena: Gradu (Sorkuntza eta Diseinua) titulazio bat eta Graduondoko beste bat; Zeramika: Artea eta Funtzioa Masterra. Bat etortzeak eta berezitasunak ikusten dira Sorkuntza eta Diseinuko Gradu eta Zeramikako Masterreko ikasgaien metodologiak hedatzean, eta egoki ikusten da metodo jakin batzuen translazio korrelatiboa nahiz trukea.

2. LORTURIKO ESPERIENTZIEN UZTA EGUNERATZEA

Sarreran aipatu den bezala, 2012-2013 ikasturtean zehar, Zeramika: Artea eta Funtzioa Masterra eta Goi Mailako Hezkuntzaren Europako Esparrura (GHEE) egokitutako gradu-titulazioak abian jartzen ari

ziren une paraleloan hain zuzen ere, Diseinua eta Sorkuntza Graduko hirugarren mailako irakasgaiko (*Hiri Espazioa/Ingurugiroa*) ikastalde konkretu bat, Arazoetan/Proiektuetan Oinarritutako Ikaskuntzara (ABP-PBL) zuzendutako agertoki bat asimilatzeke saiakuntza batean trebatu zen, parametro horiek hartzeak arte plastikoen irakaskuntzarako dakartzan zailtasunez jabetuta. Lankidetza eta kooperazio-metodologia aktiboei lotuta, irakaskuntza horien berezko balioztat aldarrikatu zen pertsonen eta ikasleen arteko elkarrekintza handia, bai berdinen artekoa, bai irakasleen eta ikasleen artean sustatua, ikasgela-lantegietan/lan-laboretegiengan norberaren eta taldearen ariketak egiteko denbora-tartearekin zuzenean lotuta.

Aipatutako ikuspegiari kalterik egin gabe, *Hiri Espazioa/Ingurugiroa* irakasgaiarako gaitasun espezifikoak eta zeharkakoak idatzi ziren, oro har beharrezkoak diren materialak, prozedurak eta teknologiak identifikatzeko, ezagutzeko eta manipulatzeko gaikuntzarekin zerikusia zutenak. Gaitasun horiek, hain zuzen ere, sortzea zuten helburu, eta, zehazki, diseinuaren begiradaz bada ere eskulturaren jakintzara bideratuta zeuden, hala nola:

a) Jarrera kritikoak eta baliabideak aztertu, kontzeptuetan zein hiri-espazioan eskultura proiektuak aurrera eramateko prozesuen gorpuztean sortzen direnak.

b) Prozedurazko estrategiak eta eskulturako kontzeptuzko baliabideak erabili, arte proiektu eskultorikoa edo ingurugiro-diseinuari atxikia hiri-eremuan kokatzeko.

c) Hiri-espazioan gertatzen diren eskultura, arkitektura eta diseinuaren loturak zein esanahiak interpretatu, era berean, kontzeptuan zein forman ulermen egokia garatuz.

d) Hiriko arte adierazpideen eta diseinuaren aspektu esanguratsuenen alde teoriko eta metodologikoak azaldu, teoria horien gaurko testuinguruak modu egokian interpretatuz.

Hauetatik gaitasunetatik, irakasgaiaren zenbait helburu ere ondo-rioztatzen ziren:

a) Beharrian praktikoak, komunikatiboak, sinbolikoak gertatzen diren ingurune eta hiri-espazioan egokitzen diren proiektuen analisia eta errealizazioa erraztea, artearen eiteari lotutako gaitasunak eta irizpideak kontuan hartuko dituzten proposamenak jorratuz.

b) Lan publikoaren izaera kolektiboa erakustea, arkitekto, hirigile edo ingeniarien antzera balioan jartzea artista plastikoak, hiriko esku-hartze lan baten aurrean, bere unibertso pertsonalari balioa emateko naiz bere funtzioak eta estrategiak arlo anitzetan kokatzeko.

c) Etorkizuneko sortzaileek ardura har dezaten eragitea, leku bateko erabiltzaile gisa eta tokiaren izaera zein ingurugiroaren arteko harremanetan jokatu duten bitartekari papera balioetsiz, artearen sentsibiltateak eraikitze-moduetan perspektiba berezitua txertatuz.

UPV/EHUko Arte Ederren Fakultateak antolaturiko Sorkuntza eta Diseinua Graduko ikasketa berezietan graduaturiko pertsonen profilak kontuan hartuz, diferentzia modura, arteak berak bere jatorrian duen jakintza kontuan hartu behar da, eta horrek, arte plastikoen arloko teknika arras desberdinak lekuko (pintura, marrazketa, eskultura, argazkigintza, zinematografia, e.a.) planteatzen diren interakzio publikoetan duen eragin erabakigarria. Irakasgai honen ardura baita, balioan jartzea eskulturaren esparrutik, ingurune eta espazio sentikorra eraikitzen lagundu duten ezagupen eta diseinu-praktikak.

Arte plastikoetako eta diseinuko sormen-egintzaren erantzukizuna prozedura, tresna, metodologia eta jarrera-alderdietan eragiten duten gaitasunetan eta irakaskuntza-emaitez oinarritzen baita, kontzeptuzko alderdiez gain. Artea eta haren aplikazioa, adibidez diseinuan, jakintza tekniko gisa aitortzeko helburuarekin, gaitasunek berariazko konfigurazio eta irudikapenetan eragina duten prozesu artistikoen erabilera eraginkorra azpimarratzen zuten. Beharrezkoa da, era berean, denboran aldakorrek diren testuinguru historiko eta sozialak ezagutzea, artearen historiari eta kultura garaikideari atxikitako gertakari artistikoak ematen direnean, eta, beraz, horiek gogoeta eta kritika bidez hauteman behar dira. Betiere titulazioko gaitasunekin korrelazioan (Sorkuntza eta Diseinua), batez ere Graduko hirugarren mailakoekin.

Horiek gaitasunok ikasleak gaitzen dituzte eta ikaskuntza-emaizta batzuetara ailegatzen laguntzen dute. Horiek emaitzak diziplinarteko proiektu artistikoak edota diseinuari dagozkionak lehenesten dituzte ekoizpen esperimentalen oinarri gisa, helburu pertsonalak gauzatuz eta horrez gain, lan-metodologia partikularrak mugatuz, ekoizpen esperimental autonomorako jakintza teknikoaren ebidentzia gisa, maila indibidualean edo kolektiboan. Horren ondorioz, ekoizpen esperimental batzuk sortzen dira eremuotan, eta horiek sinbolizazioko edo zentzu-inbestidurako oinarritzko eragiketak laburbiltzen dituzte, teknika bakoitzerako beharrezkoak diren baliabideak erabiliz. Aurkikuntzak, irtenbide material objektiboak eta irudiak, zentzua eta sinbolizazioa sortzeko garapen metodologiko nahiz prozesualean egiteko modu desberdinak sustatzen dituzte. Emaitzak, diseinuak bere barne-arauekin eragin ditzakeen material-bihurtze artistiko eskultoriko edo idatzizko, ahozko nahiz ulermen kritikoko lanetan itzultzen dira, eta artisten pentsamenduak eta metodologiak, gertakari artistikoak, zein, etorkizun hurbilean diseinugileak izango diren egungo ikasleen lan-eremuaren xehetasun erabilgarriak ez ezik horiek azaleratzen diren testuinguru sozialak aztertu, identifikatu, ulertu eta aintzat hartzen dituzte².

² Informazioa irakasgai honen irakaskuntza-gidan dago jasota, sarbide publikoko web-helbide honetan: <https://www.ehu.eus/eu/web/graduak/sorkuntza-eta-diseinuko-gradua>.

Proposatutako gai-zerrendaren ildo nagusien helburua alderdi teorikoak eta praktikokoak biltzen dituen metodologia arakatzea zen, bloke orokorretan egituratutako edukien jarraipen malguarekin. Nolanahi ere, horiek gaiak, espazio-ingurugiroaren diseinutik eratorri izan diren eskultura-objektuen zein hiri-altzarien ezaugarriak zehazten dituzte, espazio arkitektonikoarekin elkarrekintzan, eskulturatik eta objektuen diseinutik hasita paisaia arkitektonikorantz bideragarria eta legitimoa izan daitekeen interpretazio baterako, hiri-kalitateari dagokionez, hiriarekin eta espazio publiko-hiritar gisa ulertutakoarekin lotzen baita. Eredu horretan, arkitektura eta paisaia-eraikuntzaren oinarritzko elementuak eta hiriaren antolaketa aztertzen dira, bere ideologiarekin, teknikekin eta ereduarekin. Paisaiaren eta hiriaren giza eraldaketa lurraldea arrazionalizatzeko prozesu legez egiaztatzen da, hirian azaleratzen den paisaiaren nozioa mantenduz. Monumentuaren kontzeptua (klasikoa eta tradiziozkoa) eskulturaren baldintza garaikide eta modernoengandik inguruan nola gauditu den ikusteko testuinguru egokia. Garai bateko egoera batera iritsi arte, non postmodernitateko irudikapenaren krisia gertatzen den, objektuaren eta objektuak hartzen duen lekua arteko harremanei buruzko kontzientzia hartzeko eratze-eragiketegi bidea erraztuz³. Horrekin lotuta, zentroaren nozioa galtzea eta mugak gainditzea gertatzen da, diseinua bitarteko eta euskarriak gurutzatuz, hala nola eskulturaren eta hiri-altzarien «bi-tarteko» espazioak⁴. Espazioek eta lekuek alderdi arkitektonikoa eszenaratzen laguntzen dute, eta, batzuetan, arkitektura-txoeetan (mikro-arkitekturetan) ere islatzen da, eskultura-eskalan baina funtzio-objektu bilakatuz.

Ikuspegi horren ondorioz, ikasgai-zerrendatik, helburuetatik eta gaitasunetatik sortutako galdera eragile egituratzaile bat ezarri zen, ikaskuntzaren emaitzak lortzeko gida gisa balioko zuena. Egitura hori azpi-arazoz osatutako ur-jauzi baten bidez taxutzen da, eta laugarren atalean zehatzago aipatuko dugu. Hala ere, agerian geratzen da eskultura eta arkitektura-kontzeptuen (termino zuzentzaileak) eta kategorien arteko lotura intrintsekoa, hiriko espazio publikoarekin eta haren paisaia planifikatu eta eraikiarekin lotura errepikakorra duena, batik bat gertakari artistiko eta eskultorikoak prezipitatzen diren esparru gisa. Norberaren ingurumari hiri zein herrien berreraikuntzatik abiatuta, hirigintza-birmoldaketa integralari edo ez hain integralari dagokionez, ikasleak etengabe aldatzen ari diren errealtate aldakorretan arakatzea eta eskulturaren planotik araututako esku-hartze bat planteatzera gonbidatzen ziren.

Irakasleak ikasketa-kasu bezala eskaintzen dituen Bartzelonako edota Bilboko adibideetan, gaur egungo hirietako espazio publiko urbanoan birmoldaketa-lanak jarri direla ikus daiteke, arkitekturako eta

³ Rosalind KRAUSS (1996).

⁴ Harriet SENIE (1992).

inguruneko elementuekin lotura zuzena duten paisaia eta hirigintza-alderdiak kontuan hartzeari gero eta kateatuago daudenak, alegia. Integrazio hori nabariagoa eta nabarmenagoa (eraginkorra) izan daiteke proiektuen sabelean, hainbat diziplinatan esku hartzen baitute. Hala ere, arkitekturak pisu handia du, baina alderdi artistikoei, ingurugiroen diseinu integralei eta, batez ere, eskulturakoei ere garrantzi handia dute. Hori oinarri hartuta, ikasleek gai izan behar dute, arte-prestakuntza sentikorra duten pertsona moduan, tresna kontzeptual, metodologiko eta prozedurazko mota guztietakoen bidez, bai eta erabilgarri dauden baliabide teknikoen bidez ere, eskultura-pieza bat jartzea edo ingurugiroaren diseinua aintzat hartzen duen esku-hartze bat proposatzea egokia den ala ez planteatzeko eta defendatzeko, artea (eskultura) eta diseinuari esker sorturiko funtzio berezidun objektuei elkarrekin hitz egin dezaten edota elkarrekin harremanetan bizi ahal izan daitezkeen hirigintza eta lurralde-komplexutasun handiagoko edo txikiagoko egoeretan. Horrela proposatutako irakaskuntza-ikaskuntza prozesu batek ebaluazio nabarmen aktiboa dakar berekin, eta prozesu horren tresnek testuinguru-ariketa delakoaren eta ikasgela-tailerraren berezko zereginen etengabeko jarraipena bermatu behar dute, atzerarikadura egokiarekin eta eztabaida/bateratze dialogikoko faseekin, berrikuspen partzialak *feedback*arekin eta behin behineko entregagarriekin txandakatuz. Beraz, kalifikazioa ez da inertzia gehigarriaren bidez lortzen, metodo aktiboaren egiturari oinarritzen den laburpen sakon baten bidez baizik.

3. ARTEA, ARKITEKTURA ETA FUNTZIO ERABILGARRI-ESTETIKOA. MASTER EREDUA: ZERAMIKAN, OBJEKTU BITXIEN DISEINUAN ETA ESKULTURAN PROFESIONALIZATZEKO EDO IKERTZEKO AUKERA

Master honetako irakasgai espezifikoa: *Zeramika eta Arkitektura*, masterraren irakastaldiko urtarila eta otsaila bitartean kokatzen da, urteko egutegi arautuaren arabera. Aztertzen ari garen irakasgaiak, bere modalitate esperimental dela eta, bat egiten du *Eskultura eta Zeramika* irakasgaiarekin (Masterreko gida-gaia, 6 ECTS kredituko balioarekin), eta paisaiak zein horien eraldaketa kontuan hartzean eragina duten alderdi estetiko artistikoen garapen tematikoaren eta arkitektonikoaren adierazpen ezberdinak ez ezik lurraldeari dagokionez elkarrengandik urrun daudenak direla eta, puntu komunak zein elkarrekintzan dauden hainbat alderdi barnebiltzen ditu, adibidez: *Formatu handiko eskultura-objektuaren eraikuntza / Esku-hartzeak testuinguruan: ingurune naturala eta eraikia* (3 ECTS kreditu), biak arkitekturarekiko erlazio estuan. Sekuentzia horretan, eskaintzen den lehena (eta ikasleek egiten dutena) *Zeramika eta Arkitektura* da, beste bien aurretik. Azkenik, arte garaikideko berrikuntzaren oinarri partekatutik eta proiektu artistikoen,

arkitekturazkoen, diseinukoen, diziplina anitzeko sorkuntza-prozesuen eta tokiekiko elkarreraginaren inguruko praktiketarik abiatuta, ageriko analogiak irudikatzen dira irakasgai hauekin: *Objektu zeramikoen testuinguruak* (3 ECTS kreditu) eta *Euskarririk haratago* (3 ECTS kreditu). Hauetan ikasgai bereziotan, jadanik zehazkiago esperimentatu ahal izaten dira gela-espaziotik at, ezein ingurugiroen barnean murgildurik gertatu daitezkeen arkitektura-kutsuko arte-interbentzio eskultorikoak.

3.1. Jakintzaren baitako eskumen hautatuak

Irakasgaiak ikasleak gaitasun horietan deskribatzen eta inplikatzeko dituzte; horiek gaitasunok denboran sortutako ezagutza batzuen ondorio baitira:

a) Irakasgaiaren oinarriak ezagutzea: eskultura-praktikak diseinuari bideraturiko zeramikaren eremuari egiten dioten ekarpena ezartzea, sorkuntza artistiko plastiko garaikidearen prozedura berritzaile gisa, balio tradizional eta historikotik harago.

b) Zeramikazko eskultura-proiektuen analisia eta sorkuntza integratuko duten estrategiak eskuratzea, norberaren gogoetatik eta egungo artearen nahiz diseinuaren oinarriak kontuan hartuz gaitasun autonomoa garatzeko.

c) Hizkuntza artistikoen (eskultorikoak), diseinu-esparruaren berezitasunak eta zeramika-espezifikotasunaren garapenaren arteko erlazio-estrategiak eskuratzea.

d) Jarrera kritikoak aktibatzea, bai kontzeptualizazioan, bai espazio publikoan zeramika-proiektuak eratzeko prozesuetan.

e) Ezarritako egitura eta zentzu-harremanak aztertzea, eskultura-arkitekturaren artean gertatutako praktika horien potentzial sinboliko eta funtzionalen kateatzeari buruz hausnartuz, zeramikatik diseinuaren esparrurako begiradaz indartuz.

f) Problematika estetikoak testuinguruan kokatzea, artearen (eskultura), arkitekturaren eta paisaiaren arteko lotura etengabe (berrir) eguneratzearekin mamitzen diren diseinu-arazoak ebazteari buruzko galderak eginez.

g) Balio kritikoak integratzen dituzten trebetasunak eta gaitasunak garatzea, kultura garaikidean zeramikako diseinua, artea eta eskultura bistaratzeko eta gauatzeko prozesu berriak testuinguruan kokatzea ahalbidetuz, arkitekturaren oihartzunekin.

h) Zeramika eta arkitektura irakasgaiaren eta antzeko gaien arteko harreman eta elkarrekintza indartsu, bizi edo osagarriak aurkitzea, bai masterrean bertan lekua izateagatik, bai eskulturaren eta diseinuaren tratamenduagatik ere.

Goian aipatu ditugun gaitasun espezifiko horien artean, «f» zenbakiduna zeharkako gaitasuntzat ere har daiteke, eta azken biak

(«g» eta «h»), berriz, erabat zeharkakoak dira masterraren beraren gaitasunekiko⁵. Gaitasun horiek ikastaldean garatzeak, saio-tailerren dinamikarekin eta banakako/baterako/partekatutako zereginekin batera, ikaskuntzaren emaitza hauek eskuratzea dakar:

a) Artearen eta, bereziki, eskulturaren berezko arazoak identifikatzea eta horiekin lan egitea, zeramika-diseinuaren eta arkitekturaren artean ezartzen diren harremanen bidez.

b) Arazo esperimentalak ebaztea eskultura-teknikara aplikatutako zeramikaren arloan, askotariko agertokietan eta objektu erabilgarriaren diseinuarekin, begirada estetikotik so.

c) Hiru dimentsioko proiektu-prozesuak ezagutzeko eta esperimentatzeko gai izatea, eta zeramikarekin lotura handiagoa edo txikiagoa duten forma artikulatuak proiektatzeko, erlazionatzeko eta ekoizteko moduetan gaitasun kritikoak garatzeko tresnak menderatzea.

d) Ezarritako egitura eta zentzu-harremanen azterketa proposatzeko beharrezko baliabideak hedatzea, eskulturaren, diseinuaren,

⁵ Masterrak jorratzen dituen gaitasunak bere web orrian idatziak aurkituko ditugu, publiko orokorrarentzat sartzeko inolako oztoporik gabeko unibertsitate-webgune publikoan. Bere helbide elektronikoa honakoa da: <https://www.ehu.eus/eu/web/master/zeramika-arte-funtzioa-masterra/gaitasunak>.

— Balio kritikoak barne hartzen dituzten trebetasunak eta gaitasunak garatzea, kultura garaikidearen testuinguruan komunikazio artistikoko prozesu berriak txertatzea ahalbidetzeko.

— Eskultura proiektu zeramikoen azterketa eta sorkuntza barne hartzen dituzten estrategiak bereganatzea, gaitasun autonomoa hausnarketa pertsonaletik eta egungo artearen aurrekontuak aintzat hartuta garatzeko.

— Formalizazio artistiko zeramikoak sorkuntza eta lanbide estrategia berrietarantz sortzea ahalbidetuko dituzten trebetasunak eta ezagutzak bideratzeko gaitasuna.

— Ikaskuntzan sistematizatzeko gaitzea, zeramikaren eta Arte Ederren arloko ikerketa proiektuak ahalbidetuko dituzten banakako eta elkarlaneko trebetasunak garatuz.

— Proiektu zeramikoak eremu publikoan zein naturan sortzeko prozesuetan zein kontzeptualizazioan baliabideak eta jarrera kritikoak bereganatzea.

— Seriatze zeramiko eta bere proiektzio estetikoaren teknika eta kontzeptuen inguruko gaikuntza, formalizazio artistiko eta arkitektonikoetan ekoizpen sistemak txertatuz.

— Sistema zeramikoen ezagutza praktikoa eta teorikoa garatzea, proiektu bat hiri eremuan betekizun, zorroztasun eta gizarte erantzukizunaren ikuspegitik ulertu, gauzatu eta ebatzi ahal izateko.

— Trebetasunak eta komunikazio prozesuak baliabide informatikoen konfiguraziotik garatzea.

Irakasgaiaren gaitasun espezifikoak/zeharkakoak eta ikaskuntzaren emaitzak kapitulu honetan eguneratu dira. Gaitasun horiek, oro har eta modu orokorrean, ikasketak aukeratzeko motibazioa aipatzen dute, eta, horretarako, lau arrazoi garrantzitsu azaltzen dira, baztertzailak ez direnak: zeramikako graduondoko bakarra da, unibertsitate-master ofizial izaeraduna, gaur egun Espainiako estatuko unibertsitate publiko batek eskainia. Zeramikaren munduan ibilbide nazionala eta nazioartekoa duten artista eta profesionalekin osatzen da prestakuntza. Masterrak proiektu artistiko pertsonal eta etorkizuneko orientazio profesionaleko gaitzen du, eta proiektu hori Master Amaierako Lanean (MAL) gauzatu daiteke. Masterra gainditzeko ezinbesteko baldintza gisa, sektoreko enpresa eta erakundeetan nahitaezko praktika-aldi esklusiboak osatzen dira, baita ingurune artistiko garrantzitsuekin egindako lankidetzak ere. Era berean, beste hiru ikerketa-lerrarekin lotzen da: «Artea eta zeramikazko produktuaren diseinua»; «Artea, natura eta iraunkortasun ekologikoa»; «Zeramika eta teknologia», hurrenez hurren.

zeramikaren eta arkitekturaren potentzial sinboliko eta funtzionalen ezinbesteko elkarbanatzeari buruz hausnartzeko.

e) Euskarri zeramikoan konfigurazio eskultorikoak eta diseinu-objektu funtzio erabilgarriak sortzeko tresnak, materialak eta prozedurak erabiltzerakoan trebetasun tekniko, metodologiko, plastiko eta estetikoak erakusteko gaitasuna izatea.

f) Laburpen gisa, problematika estetiko plastikoak testuinguruan kokatu ahal izateko irizpideak gertu izatea, eskultura-arkitekturaren eta diseinuaren arteko lotura etengabea eguneratzearekin elkarturiko gaiak eta inguruabarrak ebazteari buruzko galderak eginez.

g) *Zeramika eta arkitektura* irakasgai landu eta lantzen diren gaiak baliozkoak, osagarriak edo errepikagarriak izan daitezkeen prozedurak zehaztea, masterreko edo, hala badagokio, beste titulazio batzuetako antzeko gaietan esperimendu ahal izateko.

Planteamendu horrek zerikusia duela defendatzen dugu, eta Masterraren prestakuntza-helburuekin bat datorrela, bere gaitasunetan laburbiltzen dena, alegia, ezagutzaren gizarteak produkzio sinbolikoko praktikak zaindu behar dituela berretsiz. Hortaz, ez arte ederrak ezta diseinua ere ezingo lirateke erantzukizun horretatik kanpo utzi; hau da, ekoizpen mota horiek ezin hobeto prestatu eta garatu behar baitira. Gure ikusteko eta egiteko moduek zentzuzko eta kontzeptuzko substratu bat dutela dion hipotesitik abiatzen baikara, artearen eta diseinuaren benetako funtsak transmititzen dituzten objektuen ekoizpenean egiazta daitekeena, eta, aldi berean, unibertsitate-eremuan ikertu beharreko ezagutza-sorta zabal baten sortzaile diren burutasunen hipotesi-sena ahanzi barik.

Artea (eta diseinua) subjektuarengan jakitea eragiten duen gertaera legez ulertzen baitira, «jakintzen jakintza» berezitu eta konplexu gisa. Ildo horretan, egitura artistikoen eta pentsamenduaren egituren artean harremanak ezartzea izan da helburua. Zehazki, esperimendazio artistikoaren eta diseinuaren bidez zer pentsamendu-mota lortzen den argitu nahi da. Esperimendazio hori gizabanakoaren ekintza etikotik dator, bere izateak banaezina da eta unibertsitate-foroetan eraikia izan beharko luke, ezagutza autonomoaren ekaitzat hartuta. Izan ere, ikaskuntza-emaitzek sorkuntza eta ikerketa-sistemak sustatzeko balio behar dute, garapen esperimentalean beren metodoak krisian jartzeko gai izan daitezen; diseinuko nahiz-eta arteko ikerketak jakintzaren garapena esan nahi du, ez eztabaida ezina eta galdetzailea, baieztapena baino gehiago. Hori dela eta, diziplinaz haraindiko izaera eta nortasun operatiboa azpimarratzen da. Sorkuntza bera hainbat errealitate-mailen aldi bereko ekintzaren ondorioz sortutako dinamikatik abiatzen da, eta, bertan, arte garaikidearekin lotutako prozesuetan sortzen ari diren jakintza espezifikoak bateratzen dira, baita zeramikan, diseinuan eta arkitekturan dituen adierazpenak ere.

Alegia, artearen eta diseinuaren jakintza zein ezagutzetatik, nahiz zeramika-prozeduren kultura zabaletatik modu peto-petoan ezin dezakegu hiri-antolaketari bideraturiko arkitekturaren jakintzan eragin;

alabaina, eragiketa hori artearen sentsibiltate eta langai sinbolikoak jorratu beharko luke, zirrikietatik bada ere diziplina arteko lantaldeetan eta halako aukeretan artista-diseinatzaileak integratu daitezen posible eginez.

3.2. Diseinu-sorkuntza eta artea transmititzeko baliabide eta prozedura bereziak

Aipagai darabilgun irakasgaiak xedea du funtsezko egitura arautzen duen irakaskuntza-ikaskuntza metodologiaren laguntzaz sortze-tailerrean ernaldutako ariketak Masterraren ildo orokorrekin sintonizatzen duen ikuskera teoriko-praktiko batetik artikulatzea. Horrela, bere denborazkotasun kronologikora eta bere intentsitatera egokitutako irakaskuntza-ikaskuntza modalitateak jarraian erakusten den moduan adierazi eta deskribatzen dira:

1. Oinarritzko sarrera eta testuinguruan jartzeko eskolak eta azalpen teoriko zein magistralak: zeramika eta diseinu-sorkuntza, eskultura eta arkitektura.
2. Irakasgaiaren ardura duen irakasleak edo irakasle-taldeak traza nagusiak azalduko ditu, ikus-entzunezko euskarrietan oinarrituta.
3. Film, dokumentu edo ikus-entzunezko proiektzioa, arkitekturari eta paisaiei lotutako zeramika-teknika eta prozedurei buruzkoa. Talde-elkarrizketak, iritziak trukatzeko, jarrera hartzea mintegi-formatuan.
4. Lehen orientazioaren euskarri gisa eta zeramika-diseinua/arte-eskultura laukotearekin lanean hasteko akuilu gisa, iturri eta erreferentzia bibliografikoak aurrez aurre azaltzea eta iruzkinak egitea.
5. Irakasgaiak irauten duen gehieneko denboran eskulturak gauzatzearekin edota funtzio erabilgarriaren objektu estetikoaren diseinuarekin zerikusia duen zereginaren proposamena.
6. Ikasleek emaitzak aurkeztea/azaltzea.

Lanek diseinu-sorkuntza arazo estetiko edo artistiko eskultoriko baten ikuspegi originala eman beharko dute, zeramikak bere egoeran edo «naturan» (material gordina, egosia, etab.) edo arkitektura-paisaiaren ideiarekin bat etorritik esku har dezan. Hori garatzeko, zorrotasunez erabiliko da aurkezpen partzialen egokitasuna berresten duen metodologia. Lortutako emaitzak ikasleentzako esperientzia aberasgarriak izan daitezen zaindu beharko dute irakasleek. Arreta berezia jarriko da alderdi formaletan, gaiari dagokionez ulergarriak eta sinesgarriak diren eta artearekin eta bere egite-jakintzarekin nahiz diseinuaren aplikazioekin konprometituta dauden irakurketa bisualak ahalbidetzen dituzten alderdietan.

Ikasleek, lan horietan, euren jarduera artistikoa proiektatu ahal izango dute, baldin eta ikastaroaren dinamikekin behar bezala lotuta baleude. Orain arte argudiatutakotik abiatuta, *Zeramika eta arkitektura*

irakasgaian proposatutako eta garatutako irakaskuntza-modalitateek izaera aktiboko metodologiari erantzuten diote. Beraz, modalitate bakoitzak intentsitate jakin bat hartzen du, eta espazio aktibo jakin bat mugatzen du, bai aurrez aurreko eskoletan, bai ordutegi ez-presentziallean garatu beharreko lan-pertsonaletan.

Azaldutakoaren ondorioz, irakasgaian ebaluazio jarraitua aplikatzen da, erabat didaktikoa eta prestakuntzakoa, atzeraelikadura beti ebaluazio batukariaren aurretik jartzen duena. Ikasturtean zehar, lanak egin ondoren ikaskuntzak izan duen aurrerapenaren berri ematen da, eta emaitzei zein hobekuntzei buruzko informazioa eta orientazioa ematen dira. Irakasgaiaren gaitasunetarako eta egindako banakako edota taldekako jardueren garapenerako, arlo horretako berariazko ebaluazio-irizpideak ezarriko dira, jakinarazitako prestakuntza-ekintza bakoitzean. Prozedura horren bidez, konpetentzien ebaluazio kritikoa eta parte-hartzailea ez beste ikaskuntza-emaitza sendoak lortzea aurreikusten baita: kontzeptuzkoak, esperimentalak, prozedurazkoak eta instrumentalak. Irakasgai honi dagokion materiala ikasturte bakoitzean zehazten da, lan-saioetan planteatutako eta sortutako gaiei eta dinamikei dagokienez. Horien helburua da ikasleen planteamenduetatik eta praktiketatik sortzen diren interesak eta ekimenak esplizituki artikulatzea, eskultura-arkitektura eta zeramika-diseinuaren sorkuntza prozedurekin bat etorritz.

4. ESPARRU ANITZEKO EZTABAIDAREN IREKIERA

Bigarren atalean aipatu izan den *Hiri Espazioa/Ingurugiroa* irakasgaiaren garapenari dagokionez, jarraibide orokorrak pertzepzio sentikorra, izaera estetikodun diseinua, arteak (eskulturak) eta arkitekturak (arkitekturatxoak) partekatzen dituzten funtsezko kontzeptuen arteko interferentzia esanguratsuez aparte, Sorkuntza eta Diseinuko Gradua deritzon titulazioko beste arlo eta diziplina batzuek ezarritako gaitasunak eskatzen dituen begirada (kritikoa eta gogoetatsua) sustatzearen eta oinarritzearen ingurukoak ziren.

Ikasgai teoriko-praktikoa denez, eta diseinurako ez ezik eskultura-praxirako irizpideak ezartzen dituen, praxi hori arkitekturarekin eta paisaiarekin/hiri-espazio publikoarekin lotzen denean, ikasleek abileziak garatu behar dute asimilazio kontzeptual, terminologiko eta epistemologikora bideratutako gaitasunak eskuratzeko, tailer-praktikez gain. Ikasleek kontzeptu teoriko garrantzitsuenak ikasi eta horietara ohitu behar dute, eta laborategi erako praktikak aurrera eraman behar dituzte, ezagutza eta itxaropen horiek islatzeko asmoarekin.

Arazo egituratzailearen haria: eskulturari, diseinuari, arkitekturari eta hiri-paisaiari buruzko zein alderdik/elementuk esku hartzen dute eta kontuan hartu behar dugu izaera estetiko nabaritzen zaion ingurugiroa

hiriko espazio publikoan jartzean? Aipatutako arazoek arkitekturaren, diseinu-domeinuaren eta eskulturaren alderdiei buruzko azterketa bat bultzatzen dute, 1990eko hamarkadaren hasieran Bartzelonako «hiri-konfigurazioen» ondorioz⁶ eta Bilboko berrikuntzan⁷ sortutako hiri-paisaiaren elkarrekintzak eta harremanak agerian uzten zutena lekuko, hamarkada horretan hasi zen birmoldaketa postindustrialak (bi adibide horiek dibergenteak izan ziren, baina bat etortze puntuak izan zituzten) amaituz joan arte. Diseinatutako banakako eta taldeko zereginen artean, inguruari buruzko hausnarketa eta analisisa sartzen dira, bai eta ikasgela-tailerrean (edo laborategian) askoz ere arreta handiagoa jartzen duen lana ere, sorkuntza artistikoan eta, batez ere, objektuen diseinuan edo eskulturan oinarritua; kontzeptuak, materialak eta emaitzen eskalak landuz, lauhileko bateko irakastaldian zehar zehaztutako ikastaldian.

Arte-sorkuntzan diharduten subjektuak direnez, eta, agian, etorki-zuneko artista-diseinugileak, ingurugiro publiko baten ardura izan dezaketenez, ikasleek, lehenik eta behin, denboran aldatu diren elementu nahiz alderdi formal eta estrukturalak identifikatu, ikertu eta baloratu behar dituzte espazio publikoan (hirian), une jakin batean proposatu behar diren sinergia eta kolokazio-inertzia horiek behar bezala bideratzen jakiteko, erakunde-instituzioek, administratiboek edo askotariko hiritarrek planteatzen diren diezazkiguketen aurrekontu eta eskakizunei dagokienez, diseinua eta artearen jakintza sostengatzen duten ezagutzetatik abiatuta erantzunak artikulatu ahal izateko⁸.

Berezko ezaugarriak dituzten espazio parte-hartzaileak dira, lekuaren nortasunari eta oroimen historikoari dagokienez prestuak, bai eta azken boladan abian jarri diren hiri-ereduen gainean eraldatzeko beharrezakia dutenak ere. Bilbon, industria-ondoko hiri baten birmoldaketaren lehen obra ukigarriak ikusten hasi ginen, fabrika-azpiegituren gainbehera eta desegite fisikoa. Adibide paradigmaticoa baita, nolabait Bartzelonakoaren antzekoa baina desberdina, lehen adierazi dugun bezala. Hirigune zentral eta fisikoki degradatuta dauden enklabe jakin batzuk hartzen dira erronka handidun makro-eragiketarako egiteko. Bertan, hirigintza berria nabarmentzen da, hiri batzuetatik besteetara giro «trukagarriak» osatzeari dagokionez, eta proiektu-plan batzuk balioan jartzeari dagokionez, bai eta industria-ekoizpeneko antzinako lekuetan «kultura eraikitze» irizpideari dagokionez ere. Horri dagokionez, hain zuzen ere, enpresa handiekin hitzarmenak sinatu baitziren, eta laster arkitektura enblematikoak eraikiak izango ziren, nonahi diseinu-elementuak eta artistikoak (eskulturak) hartzen dituen hiri-paisaia baten inguruan⁹.

⁶ Gloria MOURE (1994); Jordi BORJA eta Zaida MUXI (2003); Manuel DELGADO (2010).

⁷ Marisol ESTEBAN (1999); Ariella MASBOUNGI (2001); Javier CENICACELAYA, Antonio ROMÁN eta Iñigo SALOÑA (2001).

⁸ Isusko VIVAS-ZIARRUSTA eta Amaia LEKERIKABEASKOA-GAZTAÑAGA (2019 eta 2020).

⁹ Juan Antonio RUBIO-ARDANAZ (2019).

Konparaziozko errotze adierazgarriegirik gabe, a priori, baina diseinu-sorkuntzan, artean eta eskulturan (bereziki) egiten jakitearen onarpenetik hurbil dagoen ildo batean —arteak eta zehazki eskulturrak sostengatu beharko lituzkeen helburu edo helburu nagusiak—, *Zeramika eta arkitektura* irakasgaiak, Zeramika: Artea eta Funtzioa Masterra graduondokoan txertatua, zuzeneko sorkuntzako ikasgelatailerrean, «laborategiei» arauz dagozkien irakaskuntza-modalitateen barruan, modu bizian lan egiteko zein berezko gaiak finkatzeko eta asimilatzekeo esparru aparta eskaintzen du. Horren ondorioz, gaur egun diseinugile-artistek helburu edo funtzio horiek lortzeko dituzten zailtasunak/inguruabarrak zeintzuk diren eta zailtasun horiek nolakoak diren galdetuko dugu. Erpin horretan zilegi da geure buruari itauntzea ea artearen espezifikotasunik ba ote dagoen eraikuntzari dagokionez (espaziala, arkitektonikoa...), paisaiak edo paisaiekiko begiradak osatzen dituzten beste diziplina batzuekiko desberdina edo propioa dena.

Zeramikaren prozedura tradizionalak arte garaikidearen lekuan jartzeko ahalegintzen gara, horrek eskulturrari arkitekturarekiko dakartzkion inplikazioekin baina baita diseinuaren sorkuntzei. Horrela azalduta, arte-prozedura honen berezko balioak bere erabilgarritasun sinboliko konnotatiboan ezagutu beharko lirateke, hura zehaztu duten denotazio historikoetatik eta kulturaletatik harago, eta horiek erabilgarritasunen, bizigarritasunen eta paisaien eraketan duten baliozkotasuna birkokatu beharko litzateke.

Leku kulturalki afektibo bat aitortzeak, hain zuzen ere, leku erreal baina sinboliko konnotatu gisa dituen bizigarritasunetan eta funtzioetan sartzen gaitu, lurraldeetara eta ohituretara egokitutako modu angeluar eta optikoetan agertu ahal izan dena. Beraz, eskulturrak irudikapen-teknika gisa, zeramikak egiteko prozedura gisa eta arkitekturak eraikuntza-teknika gisa dituzten polo kontrajarriek uste dugu badituztela beharrezko baliabideak elkarren arteko tirabirei arrakastaz aurre egiteko eta zentzu-egiturak gorpuztuko dituzten elementu errekurritarri gisa elkarrekin lan egiteko, beharbada eta seguruenik diseinu-sorkuntzak tarteko argamasa legez funtzionatuz; bai testuinguru-memoriak berre-raikitzeke, bai beste garai edo espazio bateko bizigarritasun-aztarnen pertzepzioetik kanpo dauden baina aldi berean presente mantenduko liratekeen gako estetikoak berriz eguneratzeko. Azken batean, artelan orok gertuko eta urruneko iraganarekin elkarritzeta bat ezartzen du, eta aldi berean bere burua mikrokosmos bakar eta oso gisa aurkezten du. Denbora lodi eta estratifikatua hartzen du eta denbora-geruzek elkarri eragiten diote; hautemandakoak gogoratzen edo ahazten baitu, eta berritzaileak arkaikoarekin egiten du topo, presentziara ekarrita eta sinbolikoki «altxatuta».

Hasieran esaten genuen hamar urteko ibilbideari esker, emaitza nabarmenak lortu dira hauen ikasgaiaren kasuan: *Hiri Espazioa/Ingurugiroa*, Sorkuntza eta Diseinua Gradukoa alde batetik; *Zeramika*

eta Arkitektura bestetik, Zeramika: Artea eta Funtzioa Masterra programaren barrukoa. Bertan, ikasleen inplikazioa goranzko abiaduran dagoela nabaritzen da, azkeneko ikasturteetan bederen. Partekatutako esperientziak positiboak izan dira normalean indibidualizatzeko joera duten jarduera sortzaile artistikoetan berariazko lankidetzari dagokionez. Ikasgela, tailerra, laborategia hirukotean buru-belarri lan egitea ezinbestekoa denez, irakaskuntza-modalitate aktiboak bereganatu dituzte. Gai bakoitzaren eduki teoriko-praktikoen lanketarako, halaber, bizpahiru gida-lerro hartu ditugu erreferente gisa: bai graduondokoetarako eta bai Sorkuntza eta Diseinuko Gradurako UPV/EHUko Hezkuntzarako Laguntza Zerbitzuak (SAE-HELAZ) adierazitako orientabideak alde batetik, eta bestetik UPV/EHUk propio garatu duen hezkuntza-modeloa, IKD eredutik IKDi3 eredura eboluzioa izan duena azken bosturtekoetan; berau, irakaskuntzan, ikerketan eta jasangarritasunean euskarritua baitago. Alderdi honi estuki loturik eta irakasleonek lagungarri, 2019. urtean Euskal Herriko Unibertsitateak abiatu zituen zeharkako gaitasunak ere baditugu, printzipioz, titulazio ororentzat balioko luketenak, batik bat: taldean lan egiteko joera, berrikuntza, pentsaera kritikoa sustatzea eta gizarteratzea.

Halandaze, irakasgai hauetako programak etengabe irekiak daude iradokizunak eta aldaketak onartzeko eta gaurkotuak izateko, posiblea eta beharrezkoa ikusten den heinean. Horrek esan nahi du, baita ere, ahalegin bereziak egingo direla hezkuntza komunitatea osatzen duten agenteekin parekatzeko eta kontrastatzeko; direla ikasleak, irakasleak, baliabide material anitzen eta zerbitzuen esparrua kontrolatzen duten teknikariak, kanpoko aditu eta profesionalak, bestelako erakundeak, e. a.

Esandakotik ondoriozta daiteke, hortaz, maila desberdineko aipatu irakasgai hauetan proposatzen diren ariketa-sortak, lan-prozesuak zein proiektu adierazgarriak metodologia aktiboetara egokituak dakusagula, irakaskuntza-ikaskuntza prozesua eraikitzailea dela ohartaraziz, norbanakoaren entzute soiletik haratago. Norbanakoak, izatez, auto-irakaskuntza horretan protagonista dira, jakintzaren bereganatzean bakoitzak bere aurrerapenen progresioa balioztatzen eta ebaluazioa irudikatzen ere trebezia izan behar baitu. Horregatik, norberak bideratutako ikasketen baitan talde-lana ezinbestekoa da, ez bakarrik planteatzea baizik eta une oro ikasten duguna edota ikasiz goazena arrazoitzea, eztabaidatzea eta ebaluatzea ere. Delako izaera aktiboak, proposatzen den metodologiak mundu errealeko arazoetan eskarmentua izan behar duela suposatzen du, hauxe baita ikasleek beraiek leku-toki konkretuen kasurako gauzatzen dituzten proiektuek eskaintzen duten onurarik nagusia, etorkizunerako bide profesionalak ere azaleraziz. Sorkuntza eta Diseinuko Graduan, batez ere, *Hiri Espazioa/Ingurugiroa* ikasgaiaren kasuan, lantalde anizkoitzek aukeraturiko hiri-espazioak identifikatu, azaldu eta testuinguru orokorrangoan ongi finkatu behar dituzte, hiri-eskema bakoitzaren nondik norakoak eta nortasunak aza-

leratuz eta lan-prozedurarik egokienak kudeatu aha izateko ikerketak eginez. Honela, ikasleak beraien buruak eta ahalmenak Garapen Jasangarrirako Helburuen (GJH-ODS) ildoan ere kokatu beharko dituzte, 2030eko ortzi-muga aldera jarri diren eginkizunetan ekiteko.

Aktiboa eta kooperatiboa izan behar duen ikas-metodoak, beraz, gertuko arazoei irtenbideak emateko gai izan beharko du, eta profil profesionalak zehazten joateko ere. Ezagutza berriei janzteak ikasleek beraien hurreko ingurugiroetako baldintzak hobeto identifikatzeko eta beraietan esku-hartzeko gaitasuna esan nahi du, bizpahiru pertsonako taldeetan antolaturiko ikaskideak, ikasgelatik kanpoko informazioa ere erruz eskuratu beharren aurkituko baitira eta elkarbanaturiko lan-giroaz aparte, autonomia nahikoa izango dute lan-prozesuaren baitan erabakiak hartu ahal izateko eta horiek behin eta berriro berrikusteko irakaslearen laguntzaz, beronek hausnarketa kritikoak helaraziko dituelarik.

Ondorioz, irakaslearen rola ere uneoro aktiboa izango da, lantaldeen arazo espezifikoetan gida-lana murgilduz eta ahoz nahiz idatziz berrelikadura lanaren oharkizunak eskaintzeko. Entregatu beharreko materialek, lerrokadura hirukoitza izango dute. Hiri-espazio jakina eraberritzeko proiektuek alderdi grafiko garrantzitsua izango dute panel ilustratuen prestakuntzarekin. Hauek panelok, hiritarrei gune-tokietako lanak azaltzeko erakundeek erabiltzen dituzten funtzioa izan beharko dutenez, ulergarriak, ikusteko atseginak eta egiten ari garenaren eusle fidagarriak izango dira. Testu-atalen eta irudien konbinaketak diseinu grafikoaren baldintza funtsezkoenak ere bete beharko ditu, sintesi lanaz gain maketazio eta muntaia lana ere eskatuko baita. Ikus baliabideak orotarikoak izan daitezke, proiektuen adierazpenean zentzua baldin badaute: mapa-zatiak eta planoak, marrazkiak, bi dimentsioko infografia-lanak, krokisak, argazki muntaiak eta abarrekoak, egin behar horretan diseinu grafikoaren egitura-kontzeptuak praktikan jarritz.

Bestalde, hiru dimentsioko atalaren eskakizunak jakintza eta ezagutza eskultorikoarekin harreman sendoagoa erakutsiko du. Eskultura-maketa gisa, lantalde bakoitzak bere proposamenaren hurbilketa egituratuko du, ingurugiroa errealismoz erreproduzitzearen ohituratik ihesi, forma abstraktuaren soiltasunak agerian usten duen funtsezkotasunerantz. Esan ditugun bina alderdiok, dossier memoria legei izendatzen den dokumentuarekin osatuko dira. Hirugarren esku-liburu honek egingen dako lanaren, harturiko erabaki eztabaidatuen eta jorraturiko ekintzen informazio zehatza bildu beharko du, horretarako sorturiko aurkibidea bitarteko. Hala nola, bertan islatua gelditu beharko da, zehatz-mehatz, buruturiko ikerketa, bazterturiko ideiak, sakontzeke gelditu diren egitasmoak eta garatzea zilegi izan den aukera, alegia. Era berean, ikastaldearen autoebaluaziorako tresna kontzeptualak irudikatuko ditu.

Zeramika eta Arkitektura ikasgaian, bidenabar, graduondoko presetakuntza berezi baten oinarritzko parte izanik, arestian aipaturiko lan-

ildoetatik guztiz aldentzen ez bada ere, gelako metodologia zertxobait ezberdindu daiteke. Hiri-espazioaren moldaketa anizkoitzak gelako aurkezpen eta mintegietan lantzen dira, zeramika-materialarekin zuzenki edo zeharka erlazionaturiko arkitektura-ereduei arretarik behinena zuzenduta. Hauek ereduok, eskala arkitektonikoan nola ematen diren ikertu ostean, jorratu beharreko lana objektuetara mugatuago dagoela kontu egin beharko da. Arkitektura erreferente izanda, arkitektura-erakin bakunak eta adierazgarriak, egiturazko jakintza aspektu eskultorikoetara transmititu eta itzuli ahal izatea da lehen mailako helburua eta ikasleek asimilatu beharreko gaitasunen artean printzipalena. Objektuek, oro har, zeramikazko gorputz-atalak eduki beharko dituzte eta funtzio erabilgarria izan edo ez, alderdi estetikitik baldintzaturiko eskultura-forma oso kontuan izango da, aldi berean eskulturarekin eta hiru dimentsioko diseinuarekin parekatu daitezkeen objektu-forma adierazgarrien ebazpenean.

Proiektuan baino lan-prozesuetan buru-belarri arituko dira ikasleak, neurri handian erabat praktikoa den irakasgaiaren baitan, tailer moduko lan-giroan. Euskal Herriko Unibertsitateko Arte Ederren Fakultateak dituen tresna, makina eta baliabide osoro zehatzak ezagutzeko eta erabilpenaren kontrola sustatzeko aukera ere badago, zeramika eta eskultura lanaren eskakizunetan barneratu ahal izateko. Irakas-egutegian oinarrituriko lan-egunen ondoren lorturiko emaitzen kokapen egokia ere baldintza ekidinezina baita. Arkitekturaren eskalak barne-espazioetan eta barne-instalazioetan girotzen dira, azken finean lan-esparrua eraldatu eta erakustoki edo erakusketa-paisaia bilakatu arteraino. Ikasleen produktua amaituek, delako erakusketa-paisaia eratuko dute bataik bestearekiko harreman aktibatzaileak egituratuz, gela-espazioa erakusketa-paisaiarekiko uztarketan.

Hauetan lerrootan aztergai izan ditugun irakasgaiok —Sorkuntza eta Diseinuko Graduak *Hiri Espazioa/Ingurugiroa* eta Zeramika: Artea eta Funtzioa Masterreko *Zeramika eta Arkitektura*— biak ala biak arkitekturaren eta paisaiaren kontzeptuak itzultzen dituzte eskultura-eremura eta diseinuaren esparrura, grafikoa eta objektuena, bi eta hiru dimentsiokoa. Haatik, lehenago aitaturiko IKDi3 ereduaren itzaletan gaur egun darabilzkigun garapen jasangarriaren helburuetatik, batez ere kalitatezko hezkuntza gauzatzea, hiri eta komunitate jasangarrien aldeko apustua egitea, lurraldeetako ekosistemen biziraupenean laguntzea eta energia-iturriak ez agortzeko lan egokiak hobestea lirateke aipagarrienak.

5. AKABUKO HITZARI EGOTZIRIKO ASMO ONDORIOZTATZAILEA

Arkitektura-paisaiaren ikuspegitik arte-eskultura transmititzera bideratutako irakaskuntza-metodologiaren hedapenean kointzidentziak

eta berezitasunak nozitzen ditugula ondoriozta daiteke, hastapeneko lan-ildoen norabidean eta diseinuaren baitako sorkuntza lagungarri.

Bat etortzeak eta berezitasunak ikusten ditugu arte-eskulturaren transmisiara zuzendutako irakaskuntza-metodologiaren hedapenean, arkitektura-paisaia (hiri-arkitektura) perspektiban, eta zeramika-prozesuekin batera, funtzionaltasun sinboliko artistikorantz jotzen dutenean¹⁰.

Zentzu horretan, *Hiri Espazioa/Ingurugiroa* enborreko ikasgaia da, Sorkuntza eta Diseinuko hirugarren mailakoa; *Zeramika eta Arkitektura*, berriz, Arte eta Funtzioa Masterraren egitura-gorputzeko irakasgaia da. Bi irakasgai horien ardura, ibilbide egonkortua duen egiaztatutako ikerketa-talde bereko irakasle-pareak daukate. Hau da, ikertalde bereko irakasle-kide bana ari da bi irakasgaiak urtero birmoldatzen. Euren izaeragatik eta aldi baterako ibilbideagatik, irakaskuntza-ikaskuntza metodologia bertsuan parte hartzen dute, neurri bateraino helburuak eta gaitasunak partekatuz, eta pisu espezifiko handia dute ikasgelatailerreko sorkuntza artistikoek («materializazioa» deritzoguna). Argi dago, hala ere, graduetako irakasgaiak gutxitan izan direla jarraipen-toki apropos edo lotura masterrean ikasketak jarraitu nahi dituzten Arte Ederretako Fakultateko ikasleentzat, bertan izena eman duten ikasleen jatorri desberdin eta askotarikoagatik. Hala ere, arkitekturarekin eta paisaiarekin (hirikoa) harremanetan jartzen denean, irakasgai horiek arte-eskulturari bezainbat sorkuntza-diseinuari buruzko problemek hurbiltzea eta ebaztea ahalbidetzen dute. Bai eskulturak gehiago gauzatzearen eta kokapenerako instalaziorako lekuaren ideiarekiko konpromisoaren ikuspegitik, bai prozedurak berak (zeramikakoak) sorkuntza-prozesuak gidatzen dituen ikusmoldeetatik. Hor tartean, sormen estetikodun diseinua, objektu finkoetara bideratua, ingurune ko paisaia aberastera dator.

Aipatu ditugun sinergiekin eta dinamikekin artearen, oro har, eta diseinuaren, arkitekturaren eta paisaiaren bidez testuingurua sortzeari lotutako nozio batzuk ehuntzen dituzte, eta lurralde komun batean elkar eragiten duten aldagai batzuk inplikatzeko dituzte, elkarrekiko interakzioen, haien denbora-bilakaeraren eta urgaineratzen dituzten balio estetiko zein soziokulturalen argitan ulertu eta artikulatu behar direnak. Milaka urteko prozedura da, zeramika bezalako kultura eta zibilizazio askoren bilakaeran historikoki errota. Argi dago, hortaz, inflexio-puntu nabarmenak izan dituela teknikaren nahiz prozeduraren eraketan; objektuak itxuratze, diseinatze, sortzeko orduan; bai erabilera-funtzioari dagokionez, bai funtzionaltasun estetikoari dagokionez. Denboran eta lurraldean hedatutako bilakaerak ez du zerikusirik arkitektura bezalako beste eraikuntza-teknika batekin gurutzatzearekin, mendeetan zehar kristalizatu diren hamaika abantaila materialez baliatu baita. Hala ere, ikasgaian zeramikak eskulturrekiko duen atxikimen-

¹⁰ Isusko VIVAS-ZIARRUSTA (2023).

dua eta alderantzizkoa lerratzen dira, gaurko eguneratzeetan, diseinuan beste arte garaikidean ere barneratzen dela kontu eginez.

6. OHARTURIKO BIBLIOGRAFIA-ITURRIAK

- BORJA, Jordi, eta MUXI, Zaida (2003). *El espacio público: ciudad y ciudadanía*, Bartzelona, Electa.
- CELAN, G. (ed.) (2004). *Architecture & Arts 1900/2004*, Milan, Skira.
- CENICACELAYA, Javier; ROMAN, Antonio, eta SALOÑA, Iñigo (2001). *Bilbao. Hiri ikuspegia. Una visión urbana. An urban vision 1300-2000*, Bilbao, Colegio Oficial de Arquitectos Vasco-Navarro COAVN.
- DELGADO, Manuel (2010). *La ciudad mentirosa. Fraude y miseria del «modelo Barcelona»*, Madril, Catarata.
- ESTEBAN, Maisol (1999). *Bilbao, luces y sombras del titanio. El proceso de regeneración del Bilbao metropolitano*, Bilbao, Universidad del País Vasco UPV/EHU.
- FOSTER, Hall (2013). *El complot arte-arquitectura*, Madril, Turner.
- HAMILTON, D. (1978). *Architectural Ceramics*, London, Tames & Hudson.
- KRAUSS, Rosalind (1996). «La escultura en el campo expandido», *La originalidad de la vanguardia y otros mitos modernos*, Alianza Forma (Jatorrizkoa, 1985: *The originality of the avant-garde and other modernist myths*, Cambridg Mit press, cop.).
- MASBOUNGI, Ariella (2001). *Bilbao. La cultura como proyecto de ciudad*, Bilbao, Fundación Bilbao Ría-2000.
- MORIENTE, D. (2010). *Poéticas arquitectónicas en el arte contemporáneo*, Madril, Cátedra.
- MOURE, Gloria (1994). *Configuraciones urbanas*, Bartzelona, Polígrafa eta Olimpiada Cultural Barcelona.
- RUBIO-ARDANAZ, Juan Antonio (2019). *Bilbao, ciudad y mar. Paseos etnográficos y retazos patrimoniales de carácter transmoderno*, Bilbao, Itsasmuseum.
- SCHULZ-DORNBURG, J. (2002). *Arte y arquitectura: nuevas afinidades*, Bartzelona, Gustavo Gili.
- SENIE, Harriet (1992). *Contemporary public sculpture. Tradition, transformation on controversy*, Oxford, New York, Oxford & New York University Press.
- SORKUNTZA ETA DISEINUKO GRADUA, *Arte Ederren Fakultatea*, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, <https://www.ehu.eus/eu/web/graduak/sorkuntza-eta-diseinuko-gradua>.
- VIVAS-ZIARRUSTA, Isusko (2014). «Aprendizaje basado en problemas: Escultura, Arquitectura y Paisaje urbano» (irakaskuntza-gida), *Ikd-Baliabideak*, 8, s. p., Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, <http://hdl.handle.net/10810/13931>.
- (2023). «Del Grado en Arte al Postgrado. Estudio e impementación de metodologías docentes innovadoras desde la Escultura en un Programa de Máster universitario», in Almudena BARRIENTOS BÁEZ, Antonio LORENZO REIZABAL, David CALDEVILLA DOMÍNGUEZ (koord.), *Competencias comunicativas en educación superior*, Madril, Tecnos (Colección Ediciones Universitarias), pp. 391-404.

- VIVAS-ZIARRUSTA, Isusko eta LEKERIKABEASKOA-GAZTAÑAGA, Amaia (2019). «Enseñanza artística y transmisión del arte. Un siglo de ensayos, paradigmas metodológicos y adaptaciones...», in J. D. BARQUERO CABREO *et al.* (koord.), *Diseñando la nueva docencia del siglo XXI*, Madril, Pirámide, pp. 417-431.
- (2020). «Transmisión estética sensible. Formación en arte y ensayos experimentales en el País Vasco», in A. FERNÁNDEZ-PACHECO GARCÍA, M.^a T. FUERTES CAMACHO, O. MORENO FERNÁNDEZ (koord.), *Alfabetización en la nueva docencia* (Colección Ciencias de la Comunicación), Valentzia, Tirant lo Blanch (Humanidades), pp. 481-495.
- VV. AA. (autore anitz) (2001). *Crudo-quemado*, Bilbao, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU.
- (2003). *Arquitecturas excéntricas* (catálogo), Donostia-San Sebastián, Centro Cultural Koldo Mitxelena Kulturunea.
- ZERAMIKA: ARTEA ETA FUNTZIOA MASTERRA, Unibertsitate Masterraren web orria, Arte Ederren Fakultatea, Euskal Herriko Unibertsitatea UPV/EHU, <https://www.ehu.eus/eu/web/master/zeramika-arte-funtzioa-masterra>.
- * GIC-GV-IT1655-22, 2022-2025 Euskal Unibertsitate Sistemako A bikaintasuneko kategoria duen Talde Finkatu, Egonkortu eta Akreditatuari lotutako testua: KREAREak, Euskal Herriko Unibertsitateko (UPV/EHU) Eskultura eta Arte eta Teknologia Sailean (Arte Ederren Fakultatean) atxikimendua duena, eta Lojako (Ekuador) UTPL Unibertsitate Tekniko Partikularreko Arte eta Estetika Ikerketa Taldearekin lerratua.

